

Berriz ere euskal aditzaz

JOSU OREGI

Aspaldi xamar argitaratu nuen lan baten¹, euskal aditzari buruzko osoko teoria bat oraindik eginkizun geneukala, eta lan hori bapatean egiterik ez zegoela esan ondoren, zera gaineratzen nuen: Horrek ez zuela erabateko ilunpetan egon eta iraun behar dugunik esan nahi baizik eta, alderantziz, nire ustez euskal aditzaren bilakabidean soma daitezkeen zenbait une, tasun eta joerez ihardutzea egingarri dugula, bere nondik-norakoez zatika bederen jabeagotzeko lagungarri.

Eta lan horretan beste hizkuntzen gramatika-egituretatik ez, baizik eta euskeraren beraren baitan aurkitu edo somatu ditzakegunetatik abiatu beharra ere azpimarratu izan dut, kanpotikako zedarri eta zermugapenak aldeazurre onartzetik abiatzea lehenengo baztertu beharreko oztopotzat jotzen nuela.

Bide horretatik ekingo natzaio beraz gaurko honi ere, lehen esandako batzuk laburbildu, gero aurrera-urratsen bat egiten saiatu eta ondorio berriren batzuk ateratzen ahalegintzeko.

Lehenengo eta behin, «iragankor/iragankaitz» egitura-eredua euskal aditzari inola ere egokitzen ez zaionaz jabetu gaitezen; izan ere, horri eutsiz gero iragankorretako ezein aditzek aditzburu bat eta bertatik bertarako osagarria ezinbesteko lituzke eta euskeraz, beraz, hoiei legezkiekeen **NORK** eta **NOR** edo **ZER**.

Nik lanean dihardut

bezalako bat ikustea aski da, ordea, hori horrela ez dela egiaztatzeko, **DIHARDUT** horretan **NORK** delakoa (**NIK**, alegia) bai, baina **NOR**-ik edo **ZER**-ik ez dagoela garbi ikusten bait-da, horrek ez bait-du nik **ZER** dihardudan adierazten, **ZERTAN** dihardudan baizik².

Bestalde,

ni nator, hi hator, gu gatoz, zu zatoz

1. «Euskal aditzaz zenbait gogoeta». *Fontes Linguae Vasconum*, 17 gn. alea-1974. Hori, eta euskal aditzari buruzko beste zenbait idazlan, «La Gran Enciclopedia Vasca» argitaletxeak **EUSKAL ADIZKERA** idazpurupean bildu zituen 1982garrenean.

2. K. Rotaetxek zera dio horrelakoez ari dela: «... el corpus ofrece ejemplos en los que sólo aparece el ergativo (**NORK** beraz) y es difícil imaginar cuál puede ser el absoluto. Así en: /aittak urten dau/, agurik irauten dau/». («Estudio estructural del euskara de Ondarroa». Ed. L. Zugaza. 1978).

Egia esan, horrelakoetan **NOR** edo **ZER** non egon daitezkeen aurkitzea ez da zaila, erabat ezinezkoa baino; beharrik, inon ere ez bait-daude.

eta horrelako aditz-flesioen hasierako

Na-, Ha-, Ga- eta Za-

orain darabiltzagun **NI, HI, GU eta ZU** izenordeei hertsiki datxezkiela agerian dago; **DATOR**-eko **DA** ez,ordea.

Horretaz gainera, **EKARRI** bezalako baten orainaldiko eta orainaldi-koetz besteko flesioak elkarri alderatu, eta

Nik dakart	Nik nekarren
Hik dakark, dakarren	Hik hekarren
Guk dakargu	Guk genekarren
Zuk dakarzu	Zuk zenekarren

sailak ikusita honako hauek ateratzen dira:

a) Orainaldikoetan, **NORK** delakoa **-T, -K/N, -GU eta -ZU** atzizkien bidez adierazten da, eta orainaldiko ez diranetan berriz, erabat bestela, **N-, H-, GEN- eta ZEN-** aurrizkiez baliatuz.

b) Horretaz gainera, lehenengo saileko guztiek **DAKAR** dute oinarri, eta bigarrenekoek **EKAR**.

Hoiek, beste arrazoipide batzuekin batean, euskal aditzean flesioketa sortu baino lehen **DAKAR**-en eta **EKAR**-en hasierako **DA-** eta **E-**eskuhartzaileen adierazgarri ez, baizik eta ondoren zetorren **-KAR** aditz zenaren eta «orain/orain ez» bitasunaren ezaugarri soil izan zitezkeela uste izatera garamatzate. Hori horrela izatera **DA-KAR** eta **E-KAR** lirateke, beraz, orain darabiltzagun **EKARRI**-ren flesio **NORK**-dun guztien oinarri.

Hoiek horrela, eta gaur darabilgun gaia aztertze beharrezko ez zaizkigunez gero orainaldiko ez diren aurrizkidunak alde batera utziz³,

da-kar-t, da-kar-k,...

atzizkidunen nondik norakoa dugu hurrengo azterkizuna.

Horretarako, hoiek eta **ETORRI**-ren **NORI**-dunak adibidez elkarren ondoan jarri,

Nik da-kar-T	Hura neri da-tor-kiT
Hik da-kar-K, -N	Hura hiri da-tor-kiK, -kiN
Hark da-kar	Hura hari da-tor-kio
Guk da-kar-GU	Hura guri da-tor-kiGU
Zuk da-kar-ZU	Hura zuri da-tor-ki-ZU
Haiek da-kar-(T)E	Hura haiei da-tor-kiE,

eta bi sailetakoen atzizkien arteko atxikitasuna nabarmen agertzen da.

NORI-dunak, bere aldetik, moeta berezietakoak izan daitezke:

- datorKIT, datorKIK...** eta modukoak
- deuST, deuSK, deuTSO, deuSKU,...** erakoak
- deRAuT, deRAuK, deRAuKO, deRAuKU...** bezalako **-RA**-ren bi-dezkoak, beti ere, eta beste zerbait (**(K)I, (T)S** edo **RA**) erantsita badaramate ere ia betebetean **NORK** adierazteko atzizkiak heurak daramatzatela, behiala,

3. Aurrizki hoiei buruzkoetarako ikus lehen aipatutako «Euskal aditzaz zenbait gogoeta» idazlana.

flesioketa sortzen ari zeneko hartan gauza bat eta bera izan ote zitezkeen pentsarazteraino.

ERION aditza argigarri gertatzen da uste hori funtsezkoa denentz arakatzeko. Jakina denez, eta Añibarroren, Mogelen, Zabalaren, Pouvreau-ren eta Gazteluzahar-enetan ikus daitekeenez, aditz hori gaurregun bi eratan erabil daiteke:

niRI (odola) dariT	niK (odola) darioT
hiRI (odola) dariK, dariN	hiK (odola) dariok, darioN
haRI (odola) dariO	harK (odola) dario
guRI (odola) dariGU	guK (odola) darioGU
zuRI (odola) dariZU	zuK (odola) darioZU
haieI (odola) dariE	haieK (odola) dario(T)E

Hoietan, ordea, lehenengo sailekoek *ERIN litzatekeen baten NORI-dun soil-soilak ematen dute, eta bigarrenekoek DARIO-tik abiatuta eratutakoak. Askargilea azkeneko hoietan sartzeko era ere uste horren egiaztapide gertatzen da; izan ere,

nik nigarra dariot/ nik malkoak dariZKIot

bezelakoetan, ZKI-k aditz-guna erdibitu egiten du, -RIO- aditz-gun hori jatorriz bakuna ez baizik eta

RI + O

erante batetik sortua dela erakutsiz. Horren arauera, jatorrizkoak NORI-dunak izan, aditz horren erabiltze-era aldatu izanaren ondorioz

haRI dariO ► harK dario

bilakatu, eta bigarren sailekoak DARIO horri NORK-en ezaugarriak erantsiz sortuak direla jo behar.

Hori bera gertatzen da ERAGON-ekin ere. Azkuek ematen duen

(euriaRI) daragoiO

flesioan ez dago inolako aditz-jaberik, eta NORI baino ez daramala garbi dago, gero

haRI daragoiO ► harK daragoio

gertatu eta

nik (lanari) daragoiot, hik (lanari) daragoiok,...

ateratzen direla⁴. Orobat esan daiteke Azkuek eta Larramendik ematen dituz-

4. Diodanaren osagarri, honako honetzaz ohar gaitezen: EKARRI moduko aditzek (iragankorretan sailkatzen direnak alegia) NORK dakarrenaren eta ZER dakarrenaren adieraz-

ten «**euriaRI dinoTSA**» eta «**EuriaRI DeraunSA**»-ri buruz ere; Lardizabalek, hain zuzen,

niRI dinotsaT, hiRI dinotsaK,...
niRI darauntsa T, hiRI darauntsaK,...

ematen ditu **INOTSI** eta **ERAUNTSI** aditzentzat.
IZEKI ETA IRAKIN aditzak ere horrelakoak ditugu. Lardizabalek bere Gramatikan

nik dizekat, hik dizekak,...
nik dirakit, hik dirakik,...

ematen dituenarren, bere «Testamentu zarreco eta berrico Kondaira»-n (512garren orrialdea)

haieI (gure bihotzaI) etzizekaTEN

jartzen du, **NORI**-rekin beraz; Larramendik, era berean,

haRI (zure biotzaRI) dizeka
haieI (mendiAI) izeki zitzaIEn, eta
haRI (zure barrunbeaRI) diraki

idazten ditu, Schuchardt-ek ematen dituen

(ba) dizeka etxeaRI eta
(ba) dizekaT niRI-rekin

bat datorrela.

Are gehiago: Zenbait tokitan egiaztatu daitekeenez, herriak, iragankor/irangankaitz bitasunaren arauerako egiturari legokiokeen

nik hori ez dut entenditzen

esan beharrean

niRI hori (edo horretan) ez zait entenditzen

dio, eta herriak eta idazleek ere maiz esan ohi dute

JainkoaRI nahi daKIOLA

NORI-duna, «nahi ukan»-en oraingo agizko **NORK**-duntasunari legokiokeen

JainkoaK nahi dezala-ren

ordez.

pena daramate berebaitan; **ERAGON**-en **NORK**-dunetan ez dago **ZER**-ik, ez bait-da

«**nik lana daragoiot**» esaten, «**nik lanaRI daragoiot**» baino. Horrek, aditz horren **NORK**-duntasuna berenezkoa ez baina hasierakoa bihurrituz sartutakoa dela erakusten du.

Hoietatik abiatuta, **-RA-zko NORI** dunen (**deRAUT, deRAUK...**) eta eginarazte-aditzen (**eRAbili, eRAkutsi,...**) egituren elkarrekiko antza ikusita, eta moeta horretako **NORIdunak** orain sortaldeko euskalkietan (Burundakoa barne) baino indarrean ez daudenarren lehen Otxoa-Arinek eta Larramendik erakusten digutenez beste batzutan ere (Goierrin eta Urolaldean) erabili izan zirela kontutan izanik, aditzon flesioak **NORIdunetatikakoak** izan zitezkeenaren ustea agertu nuen «Euskal aditzaz zenbait gogoeta» idazlanean. Zera nion han:

(ikusten *da-du>) ikusten da-U > **da-KUS**
berdin direla,

«**NIRI ikusten da-RA-u-T**» eta «**NIRI da-RA-kus-T**»

esanahi berdinekotzat jo daitezkeela ematen du. Gero

NIRI *da-RA-kus-T (ikusten DIT)➔NIK da-rakus-T (ikusarazten DUT)

bihurtu, eta horra **ERAKUTSI** (ikusarazi) aditz berria sortu eta lehen **NORI** adierazten zuen **-T** atzizkia **NORK** aditzjabearen adierazpide bilakatu. Gero, ordea, sortarau hori orokortzat jo, eta **NORK**-dunak orohar **NORIdunetatikakoak** izan zitezkeenaren ustea adierazten nuen.

Orain, berriz, eta harez gero egindako azterpenen ondorioz, orduan neurriz gaineko ondorioa atera nuelakotan nago. Euskal aditzak gaurkoraino iristeko egin behar izan duen milaka urtetako bide luzearen bihurtunetan eginarazte-aditz hoiek horrela sortu ahal izanak ba du itxurarik (eta giputz asko **DARABILT** bezalakoak emateko **DABILKIT** modukoez, hots, **NORI**-dunetz baliatzea uste horren alde legoke), bainan **DUT**-en eta **DAKART**-en nondik-norakoa garbitzeko, adibidez, ez deritzat onargarri.

Hoiak horrela, orain arte esandakoetan nire ustez garbi gelditu direnak honela labur genitzake:

- Ba dira orain **NORK**-dun gisa agertu ohi direnaren berez **NORIdun** diren aditzak: **IZEKI, IRAKIN, ERAGON, INOTSI,...**
- Hoietako zenbait **HARI**-dunetatik abiatu da **NORK**-dun bilakatzeke, **HARI**-ri dagokion **O** barne izateak erakusten duenez:

niri darit/ nik dariOt, niri daragoit/nik daragoiOt....

Honela dio Leopold de Rijk euskalari jakintsuak gai hoiei buruz ari dela: «Aldez aurretik ere ... ez diot egitxura haundirik aurkitzen tesi horri. Flesio batzuk besteak baino berriagoak izatekotan, alderantziz ez ote den askoz hartzekeoagoa nago: Noridunak berriagoak, alegia» («Euskal morfolojiaren zenbait...» Rudolf P.G. de Rijk: **EUSKAL LINGUISTIKA ETA LITERATURA: BIDE BERRIAK** Deustuko Unibersitateko Argitarazioak. Bilbo, 1981).

Lehen esan ditudanetan ikus daitekeenez, **NORK**-dun guztiak **NORIdunetatikakoak** direla ez onartzean de Rijk-ekin bat nator.

Bainan, nolahi ere, eta gero erakutsiko dudanez, hizkuntza-arazoetan,

eta batipat euskerari buruzkoetan aldezaurreko iritzietatik abiatzea ez da onargarri, okerreko bidetik abiatzeko arrisku gorria ekar dezakeena baino, ERION-eri buruz egiten duen azterpenean nire ustez garbi ikusten denez.

De Rijk-eren iritziz, DARIO-ren azkeneko O ez bide da HARI-ren ezaugarria, HARK aditz-jabea adierazteko behialako era baizik; horren arauera, *ERIN-en jatorrizko flesio NORK-dunak

niK dariT, hiK dariK, harK dariO, guK dariGU,...

lirateke, gero O hori «HARK» zenaz ahaztu, aditz-herrokotzat jo, gaintzeko flesioetara hedatu, eta ERION aditza eta

nik dariOt, hik dariOk, hark dario, guk dariOgu,...

saila sortzen dela⁵. Gero, hoiiek sartu izanaren eraginez lehengo zaharren berezko NORK-duntasuna galdu, eta atzekoz-aurrerako bidez NORIdun bilakatuko ziratekeen,

niRI darit, hiRI darik, haRI dario...

De Rijk-ek, bere azalpenean, «itxuragabeko» eta «zeharo sinesgaitz» deritza guk aditz horretaz geniharduenean onartutako

Hari dario → hark dario

aldakuntzari; nik neuk, berak onartzen duen alderantzizkoa zer dela eta sinesgarriagoa izan daitekeen ez dut inondik ikusten.

Bainan, gainera, bide horrek (alderantzizko horrek alegia) lehenaldiko flesioetan erabat huts egiten du; izan ere, lehen-aldikoetan de Rijk bera

nik nerion, hik herion, hark (z)erion, guk generion...

sailatik abiatzen da; beharrik, orainaldikoei buruz ziona egia balitz behar izango liratekeen O-rik gabeko

nik nerin, hik herin...

ez bait-dira inon eta inoiz agertzen.

Lehen esandakoa berrituz *ERIN-en NORI hutsezko

Niri darit/(z)eridan

Hiri darik/ (z)erikan

Hari dario/ (z)erion

Guri darigu/ (z)erigun

5. Hori horrela izatera, gainontzeko aditz NORK-dunetan ere O delako horrek beste flesio guztietara hedatuta agertu beharko zukeela ematen du; NIK DAKART, NIK DARA-BILT, NIK DAKIT etabarretan ez da, ordea, horren inolako aztarrenik aurkitzen. Berak EUKI aditzaz ari dela Mitxelenari egotzen diona bete-betean dagokio nire ustez de Rijk-eri: «Aurre-iritsi huts» batek eraman bide duela «asmakeria» bihurri eta zail horretara.

flesioetatik abiatu eta

Hari dario/(z)erion → **hark dario/(z)erion**

gertatuz gero **ERION** aditz berriko
Nik dariot/nerion
Hik dariok/herion
Hark dario/(z)erion
Guk dariogu/generion

atera izanari askoz ere sinesgarritasun haundiagoa ikusten diot.

Eta egin beharreko zehaztopen hoiek horrenbestez bukatutakotzat jo, eta atxiki gakizkion azterkizun genuen gaiari, euskal aditzaren oraingo egituraren nondik norakoa arakatzeari alegia.

Esan dugunez, orain **NOR**-en eta **NORK**-en bidez adierazten ditugun batzuk lehen **NORI**-z eman izan dira; adibidez, eta lehen esandakoak osatuz,

oraingo «**ni asarretu naiz**»-en ordezeko «**niri asarretu zait**», eta «**hori nik entenditzen dut**» -en esangura bereko «**hori niri entenditzen zait**».

Hori, ordea, gramatikariiek gaurregun ontzat eta betidanikotzat jotzen dituzten egituren arauera harrigarria gertatzen da.

Izan ere, horretaz ihardun izan dutenek euskal aditzak «iragankaitz/iragankor»-etan sailkatu, eta honelako flesioak bereizten dituzte bertan agertzen diren eskuhartzaileen arauera:

Iragankaitzetan, **hi hator bezalako nor-dun hutsak eta hi niri hatorkit moduko nor eta nori-dunak, eta**
 Iragankorretan, **nik hi hakart-en erako nork eta nor-dunak eta guk hura zuri dakarkizugu bezalako nor, nori eta nork -dunak.**

Ikusi daitekeenez, egitura horren baitan ez dago nori-dun erako eskuhartzaile bakarreko flesioentzako tokirik.

Bainan lehen ere aipatu izan dut sailkapen horren oinarri den bitasunari buruz Vendryes-ek esandakoa: «... la distinction des verbes transitifs et intransitifs, qui joue dans les grammaires classiques un grad rôle, n'a pas de fondement (...) solide»; hots: Klasiko-hizkuntzen gramatiketan hain garrantzitsu azaltzen den **IRAGANKOR/IRAGANKAITZ** bereizkuntza funtsik gabekoa da. Horri, egitura horretatik abiatuta ateratako ondorioen funtsik eza dario.

Horixe bera dio R. Triomphe-k ere aditzetan eskuhartzen dutenen arteko harremanei buruzko idazlan interesgarri baten horrek berebaitan daraman «nominativo-absoluto» bitasunaz eta «ergatiboa»-ren (**NORK** delakoaren) nondik-norakoaz ari dela: «A la lumière de la syntaxe, les langues classiques

nous ont appris à marcher stella duce avec la boussole de la relation nominatif/acusatif, que se contente de mêttre à part tout ce qui l'affole»; eta gero: «Interprétation commode et rassurante, avec son indoeuropéisme implicite... Mais elle est contraire à la conscience linguistique et au bon sens»⁶.

Hona hemen Triomphe-k hainbat hizkuntza aztertu eta ematen dituen xehapen batzuk:

«En lezghé, comme dans beaucoup d'autres langues du Caucase, on ne peut pas dire «**je vois cela**», mais seulement «**cela est vision pour moi**». En darghe, ce datif du moi coexiste avec un autre case... appelé ergatif, indiquant une nuance plus active de la vision...». Euskerazko **NIRI ULERTZEN ZAIT/NIK ULERTZEN DUT** bezalatsu beraz.

Beste baten: «La gèorgien dit «**quelque chose est vouloir por moi – je veux quelque chose,...**» avec un sujet humain au datif». Euskeraz, «**JaunaRI nahi DAKIOLA**», hori ere **NORI**-dun.

Eta gero: «Un lezghé qui **sort** avec une jeune fille (il est alors au nominatif; le verbe est intransitif) reste (ou même devient éminentement) actif quand il **l'embrasse** (verbe transitif, c'est la fille qui devient nominative tandis que le jeune lezghé se fait ergatif) eta même quand il lui dit qu'il **l'aime**, ce qui pourtant l'oblige à «descendre» au datif, la jeune fille restant nominative». Beraz, lezghieraz, neska batekin ateratzen den mutila **NOR** da (euskeraz bezala), eta neska besarkatzen duenean **NORK**, neska **NOR** dela (hori ere euskeraz bezalaxe), bainan neskari maite duela esaten dionean **NORI** bilakatzen da, neskak bere **NOR**-tasunean dirauela. Horra, beraz, gaurko euskeraz **NORK** liratekeen bietatik bat **NORK**-en bidez eta bestea **NORI**-z baliatuz adierazita⁷.

Euskal aditzaz ihardun izan dutenei Triomphe-k diona gertatu zaielakotan gaude, hots, erabili dituzten hitzek berebaitan daramaten egitura-ereduak huts eginarazi dielakoan. Hizkuntzalari horrek dionez, «latiñetikakoak eta filosofiarene eremukoak izan eta 2.000 urtetik gora dituzten «sujeto» eta «objeto» hitzek hizkuntzaren azpiegitura izkutatu, eta mozorrotuta bezala ematen digute».

Itxura-aldaketa horri itzuri egin eta gauzak direneantxe aztertu beharra dago, beraz, behialako euskal aditza zer zitekeenaz jabetu ahal izateko.

6. Euskeraz, gutxi gora-behera: Hitzurrenari gagozkiola, hizkuntza klasikoek «nominativo/acusativo» jokua izar gidari eta otan dugula ibiltzen erakutsi digute, hori nahaspilatu dezakeen oro bazter utziz. Ulertze-modu erosoa eta lasaigarria, noski, berebaitan duen indoeuropeartasunarekin, bainan hizkuntza-senaren eta zentzuaren aurkakoa.

7. Bainan, Triomphe-k esaten digunez, orain besteriz eskatzen duena **NORI**-z ematea frantsesez ere gertatu izan da: «Je me souviens» (ni oroitzen naiz) esateko, luzaroan «il me souvient» (neri oroitzen zait) esan izan da. «Je me souviens» hori XIV eta XVII mendeen artean azaldu omen zen, «je me rapelle»-ren eraginez. Frantsesean ezezik, gaztelaniaz ere aurki ditzakegu esate-modu hoiek. «Alcanzar» aditzak, besteak beste, «jakin, ulertu» ere esan nahi du; M. Moliner-ek («Diccionario de uso del español») «alcanzarse o ser comprensible una cosa por alguien determinado» dio, eta ematen duen adibidea, hots, «no se me alcanza qué pretenden con tandas idas y venidas», euskerazko «hainbeste joan-etorrirekin zer lortu nahi duten ez **ZAIT** entenditzen»-ekin erabat bat dator. «No se me alcanza» (ez **ZAIT** entenditzen) esate-modu arrunta da eta orobat, oso aspaldi ez dela, eta hiztegi gehienek iadanik ez dakartenarren, oraingo «yo no entiendo eso»-ren esangura bereko «eso a mí no se me entiende» ere.

Bide horretan, eta esandakoen gehigarri, aipa ditzagun orain **NOR** edo **NORK** erabiliz emango genituzkeen eta inoiz (eta zenbait orain ere bai) **NORI**-z baliatuz adierazi izan diren batzuk.

Orain agitz **NOR**-dun diruditenetan **HASARRETU**, **BELDURTU**, **IZUTU**, **ZORATU**, **BURUTIK EGIN** bezalako batzuk daude. Lehen ere inoiz esan izan dudanez, Bergaran, bertako euskera ondoen darabiltenei, «**aita asarretu da**»-ren ordeaz «**aitaRI asarratu JAKO (ZAIIO)**» entzun dakieke; idazleetan horren antzeko hauek aurki daitezke:

Mogel: «**aserratuko ezpaLITXAKIO**» (=asarretuko ez balitz)

Lardizabal: «**ernegatu ZITZAION**» (=ernegatu zen)

Mogel: «**bereinI zoratu ei JAKE (ZAIE)**» (=berrein zoratu ohi da)

Etxaburu: «**zoratu egin GATZU, GAKO (ZAITZU, ZAIIO)**» (=zoratu egin zera, da)

Irigoién: «**... burutik egin ZAIOLA esango genioko**» (=...egin dela)

Aspaldi ez dela, pelota-partidu bat irratiz euskera bizi eta jatorrean ematen ari zen batek, epaileen erabaki bati ikusleek oker eritzi ziotela esan, eta honako hau gaineratu zuen:

«**GURI ere harritu ZAIGU...**»;

ez «**GU ere harritu GERA**» edo «**GU ere harritu GAITU**», baizik eta **NORI** hutsezko «**GURI harritu ZAIGU**».

Orain gehienek **NORK**-ez baliatuz emango lituzketenetan, lehen honako hauek aipatu ditugu:

Niri darit, hari darik... (zenbait idazleenetan)

Niri dizekat, hari dizeka, haiei zizekaten, zuei zizekazuten... (Larra-mendi, Schuchardt, Lardizabal)

Hari diraki (Mendiburu)

Hari daragoio (Azkue)

Hari diñotsa (Azkue)

Hoién ondoan, «**HARK nahi DEZALA**»-ren ordeazko eta oraindik ere bizirik dirauen «**HARI nahi DAKIOLA**» Lardizabalengan, Uriarterengan eta Agirrerengan ere aurkitzen dugu, besteak beste. Are gehiago, Garibaik itzulpen eta guzti ematen du, eta Arrasateko erreketak baino lehenagokotzat eman ere (1448garren urtea baino lehenagokotzat bera), gaztelaniazko

«que esa palabra no quiera tener valor»

esateko **NORK**-en bidezko «berba **HORREK ez DEZALA** (edo **DAGIALA**) balio nahi» ez, baizik eta

«berba **HORRI** nay ez **DAQUIOLA** balia»

dionean.

ERITZI-renak ugari ditugu, bai «izena euki» esangurarekin, bai «iritzia izan» adierazteko. Hona heman lehenengoetakoak izan eta **NORI**-duntasuna argi eta garbi agertzen deneko batzuk:

«**Credoa, zeñARI beste modu batez deritzan...**» (Otxoa-Arin)

- «Nola deriza orrela crutcearen señaleari egiteari? (Otxoa-Arin)
 «Nola derizte patriarca AIEI?» (Gerriko)
 «Bateari deritza bestiaren semia» (Frai P. Astarloa)
 «Sacramentu onetatic batzul deitze illenac...» (Frai P. Astarloa)
 «... persona ONI... deritzo Jesuchristo» (Frai P. Astarloa)
 «NORI deitzen Adan» (Frai P. Astarloa)
 «CEÑARI deritzon Jesuchristo» (Otxoa-Arin)
 «...eta orregatic deritza egun ARI Juycioco eguna» (Otxoa-Arin)
 «...eta ONI deritza... Santuen Comunioa» (Otxoa-Arin)
 «...ZENARI deritzan Penitenciaco Sacramentua» (Otxoa-Arin)
 «...zeñari deritzan Altaracoa» (Otxoa-Arin)
 «Ossotero confessatceari deritza Confesio Generala» (Otxoa-Arin)
 «Damutasun mota ONI deritzo... Atricioa» (Otxoa-Arin)
 «...onei deriche pelicraneua ta craneua» (Mogel)
 «...bateari dericho agorra...» (Mogel)
 «...bati daritço triunfatcen den Eliça...» (Silvain Pouvreau)
 «... bertzeari daritço... gerlan ari den Eliça» (Silvain Pouvreau)
 «Oneari dericho Biotzeko Berbaldia» (Añibarro)
 «...bataari dericho Ama Birjinearen Koroia» (Añibarro)
 «Besteari dericho Errosarioa» (Añibarro)
 «Besteari zeritzon... Jakinduriako Arbola» (Gerriko)
 «Alabari zeritzan Dina» (Gerriko)
 «Semeai deritza...» (Gerriko)
 «...lelengo emacumia, ceñi derichon Eva» (Frai Bartolome)
 «Txuloari zeldilla al deritza?» (Iturriaga)
 «...ur ONI deritza lixiba» (Iturriaga)
 «Sutokaria deritza sua botatzen duen mendiaari» (Iturriaga)
 «...echeorri leen oi cereiçan Çapatari» (Mitxelena, «Textos arc. vascos»)
 «...bolsa ONI deritzaio kapulea» («Dialogues basques»)
 «Orreari Peru deritxo» (Zamarripa)
 «Zacharias-i, Joannes eritziren ÇAYON seme bat promettatu» (Leizarraga)
 «eritziren CIAYON Subiranoaren Semé» (Leizarraga)

Hoietakoa dugu, zalantzarik gabe, Mogelek dion «... alan DERIST Peru Landetako» ere.

Eta hona hemen, orain, ERITZI-k «zerbaiteri buruz iritzia izatea» adierazten dueneko zenbait adibide⁸.

- «eritzun ZURI Juan errijetan ikusi cendubela» (Frai P. Astarloa)
 «eta erri etacuei deriche ez dala bera baño adjutabakorik» (Mogele)

8. Jakina denez, ERITZI-ren gaurregungo agizko erabilkera ez da flesio hauek erakusten dutena; adibidez, Lardizabalen

«Lan hau Rebekari erraza zeritzan»

orain

«Rebekak lan HORRI erraza zeritzan»

esango genuke; Lardizabalek berak ere ba daki horrela erabiltzen,

«...(harK) ondo ezeritzan inor gabe uzteaari»

dionean adibidez. Horretxek, Lardizabalek bitarikoak erabiltzeak, bai batzuk eta bai besteak zilegi zirela erakusten digu, eta hori bera esan daiteke Mogeletz eta Añibarroz ere.

Horri buruz ikus «EUSKAL ADIZKERA»-n «Eritziren dantza» izenpurupeko idazlana.

«...eta bota eban sermoia, guztiAI ederto eritzen leguez» (Mogel)
 «Lan au Rebeca-RI erraza ceritzan» (Lardizabal)
 «Moises-I guichi deritza... emen... iltzeko ateratzea?» (Lardizabal)
 «erabaquia Israel guciaRI oiniritci zitzayon» (Lardizabal)
 «baña Josias-I eceritzan utzi cizayokeala» (Lardizabal)
 «guyenAI deritzate... bestiruditzeagatik onela itcegin ciela» (Lardizabal)
 «San Pablo-RI ondo eceritzan Efeson luzaroago egotea» (Lardizabal)
 «ConfesoreaRI baderitxo sarri confesau bear dozula...» (Añibarro)
 «ez neutsan entzuten; baña orain chito ederto derist», eta ez «deritxot» (Mogel)

Bainan hoiek aski ez badira, adizkera hoiek, NORI-dunek alegia, euskeran oraindik bizi-bizirik diraute. Bergarar gazte batek agian

«zarata bat entzun eta mutilla dala PENTSAU DOT»

liokeena, bertako euskera jatorra darabiltenek ez lukete horrela esango,

«mutilla dala PENTSAU JAT (ZAIT)»

baino; «NIRI pentsau», beraz, NORK gabeko NORI-dun, gaztelaniazko «pensar» aditzaren oraingo esangurari ez, baizik eta behialako «parecerle a alguien»-eri datxekola.

Eta orobat AKORDATU-rekin ere,

«txakurra barruan zebillela AKORDA(T)U JATAN (ZITZ AidAN)»

modukoetan, «acordar»-ek gaztelaniaz «kontaratu» adierazten zueneko⁹.

Orain artekoek, euskal aditzetan NORI-dun hutsak ba direla erakustez bat, iragankor/iragankaitzetango sailkaketaren egokitasunik eza egiaztatzen dute. Gainera, eta horri azpimarragarri deritzagu, NORI-dun hoiek egitura ber-berekoak dira aditza orain iragankaitzetan nahiz iragankorretan sailkatzen direnetakoa izan,

«niri hori ez zait etortzen»

bezalaxe

«niri hori ez zait entenditzen»

Horri, ia berez, zera dario: Bitariko aditzetan erabiltzeko gai den NORI

9. Erderatako «ME ha parecido, il M'a semblé» ere NORI-dun direla, lehen-begiratu baten euskerazkoen eta erderetakoen funtsezko ezberdintasunaz ez jabetzea gerta daiteke. Euskerazkoari, erderetakoen egitura bereko izatera «pentsatu ZAIT» ez, baizik «pentsatu DIT» legokioke ordea, eta behin eta berriz entzun ahal izan dugunez, euskaldun garbi batek, euskerazkoa gaztelaniara aldatu nahi izanez gero

«SE ME ha pensa(d)o que es el chico»

esango luke, NORK gabeko NORI-dunaz baliatuz.

Bainan egitura hori ez da gaztelaniaz ere beti arrotz izan, 7 garren oharrean «alcanzar» eta «entender» aditzez genionak erakusten duenez.

Frantsesez ere berdin, R. Triomphe-k esan eta ohar horretan bertan aldatu dugunez.

hori erabiltze-eremu mugatuagoa duen **NORK** baino zaharragotzat jotzea (aditz-flesiotan zaharragotzat alegia).

Bainan hortik abiatuz gero lehen ikusi ditugun zenbait aditzen (**IZEKI, IRAKIN, ERION,**...) oraingo erabilkera eta **-RA-** tartizkia daramatenena ulergarri gertatuko litzatekeenarren, beste batzutan aterapiderik gabeko zoko batera ginderamatzake; izan ere, «**dakarT**» flesioaren modukoetan, adibidez, ez dira hoiien oinarri izan zitezkeen **NORI**-dunak inon ere somatzen, eta are gutxiago «**DUT**» bezalakoetan.

Areago, orain arte aztertu ditugun aditz-moetetan sartu ezineko batzuk ba daude, **IHARDUN** eta **IRAUN** adibidez.

IHARDUN-eri bagagozkio,

nik lanean dihardut

bezalako batek ez du, **NORK**-dun denarren, **nik ZER** dihardudan adierazten, **ZERTAN** dihardudan baino eta, orobat, zerbaitek **IRAUN** badirau ez dugu **ZER** dirauen esaten, **ZENBAIT** dirauen baizik. Horra, beraz, beste aditz-moeta bat: **NORK** aditzburua baino ez daramaten aditzena.

Hoiiek horrela, orain arte moeta hauetako flesioak aurkitu ditugu:

- **NOR** hutsezkoak: **ni nator, ni nabil...**
- **NORI** hutsezkoak: **niri dizekat, niri derizt...**
- **NORK** hutsezkoak: **nik dihardut, nik diraut...**

guztiak aditzburu bakardunak, eta aditzburu bakar bat ez baizik eta batzuk daramatzaten

- **NOR-NORI**dunak: **ni zuri natorkizu, gu hari gatozkio...**
- **NOR-NORK**dunak: **ni zuk nakarzu, hura nik darabil,**...
- **NORK-NORI-NORK**dunak: **hura zuri nik dakarkizut,**...

Hoietan, aixa ikus daitekeenez, ba dira zenbaitek arauzkotzat, jatorrizkotzat eta ezinbestekotzat jotzen duten **NOR-NORI-NORK** oinarri-egiturari egokitu ezinekoak. Izan ere, eta inoiz esan izan dudana bezala, hizkuntzak milaka urtetan bizirik dirauela, bere honetara iristeko egin duen bidea zuzena eta arteza izan zitekeenik ezin pentsa daiteke; euskal aditza ez dugu, noski, noizbait bere osotasun osoan sortu edo asmatutakoa, bizi izateak berak denboraz mamitua baizik, bere barne-indarraz gainera alboan izan dituen hizkuntzen eta horren aldi luzean nahitaez izandako pentsatze-moduen aldakuntzen eraginak egun dagoeneko egitura horretaraino heltzeko indar egiten ziotela. Honen egiaztegarri, gaurreguneko egitura horren arauera **NORI**-z besterik gabeko flesiorik ez legoke, eta ez **NORK**-ez besterik gabekorik ere, eta hori ez da inola ere harrigarria; alderantzizkoa litzateke ulertu ezinezkoa, hots, inolako egitura-aldakuntzarik ez gertatu izana alegia. Bainan, horretara gabe ere, batzutan (orainaldian) **-T**, **-K** atzizkiez adierazten den egilea beste batzutan **N-**, **H-** aurritzien bidez ematen dela ikustea bera aski da uneren baten eten bat, egitura-aldaketa bat izan dela nabarmenarazteko. **NOR-NO-RI-NORK** delako hori oraingo euskal-adizkera ikasteko bide izan daiteke, neurri baten; ez, ordea, euskal adizkera bere osoan ulertzeko.

Alda ditzagun Triomphe-k aditz-jabearen, aditzaren eta aditz-gaiaren arteko loturaz ari dela esaten duena: «...on peut... imaginer une syntaxe ancienne où la relation sujet-verbe-objet proviendrait d'un énoncé global a deux termes (verbe «intransitif» avec un seul référent nominal) qui aurait «capturé» et

absorbé un autre énoncé global juxtaposé». Euskeraz: Aditz-buruaren, aditzaren eta aditzaren gaiaren arteko harremanean, hasierako hartan guztira bi adar baino (aditz iragankaitza eta aditz-buru bakarra) izan ez, eta gero beste adierazkizun zabalago bat «atzi» eta berebaitaratuz esakune osoago baten sorburu izan den sintasi zaharrago bat izan zitekeela pentsa daiteke.

Nire iritziz, eta euskal aditzetan hiru eratako aditz-buru bakarrekoak ba direla ikusita, euskal adizkera ulertu ahal izateko ere horrelako zerbaitetatik abiatu beharra dago, orain arte egin denaren erabat bestela. Bestela, edozein hizkuntzatan berez ulergaitza den ergatiboaren nondik-norakoa eta zergatikakoa euskeraz «iragankor/iragankaitz» bitasunetik abiatuta garbitzea agian zailagoa gertatzen da, K. Rotaetxeren azterlan baliotsuan ikus daitekeenez¹⁰.

Triomphe-k ere ergatiboaren nondik-norakoa du aztergai. Horrek, hizkuntza klasikoaren egitura baino lehenagoko egituretara jo-arazi, eta ergatibotasuna eta «egiletasuna» bat eta bera direnetik abiatuz **IZEN** batzuk beste batzuk baino «egiletasun» haundiagoa izatean ikusi uste du horren funtsa.

Horrek ez du, ordea, izen bat eta bera aditz-buru bakar denetan batzutan berenezkoan eta bestetan ergatiboan zergatik agertzen den garbitzen.

Euskeraz, dirudienez, arazoa izenaren mailan ez bainan aditzarenean aztertu behar da.

Bi aditzetako flesioen arteko loturaren nondik norakoa aztertu nahi izan denean, bietako flesio-zerrendak elkarren ondoan jarri eta sail batetik bestera nola iritsi zitekeen garbitu nahi izan da; hori eginaz gero, **IBILI**-ren flesioetatik **ERABILI**-renetara iristeko, adibidez,

na-bil — naRAbi'K, naRAbilZU...
dabil — daRAbil'T, daRAbilK, darabilGU...

atera zitezen, **IBILI**renei **-RA-** tartekatu eta **NORK**-en ezaugarriak gehitu izan beharko zitzaizkiekeen. Hori horrela gertatu ahal izanari ez diot, ordea, inolako itxurarik hartzen, eta bi sailen arteko atxikipena lehenagotik, **Triomphe-k** uste duenez aditzak aditz-buru bakarrekoak zireneko hartatik datorrela pentsatzeari askoz ere bidezkoago erizten diot. Horrela, oraingo egitura harez gero osatua litzateke, aditzen arteko elkar-eraginaren eta lehenago egituraren funtsaz arian-arian ahaztu izanaren ondoriozkoa. Aditz batzuk berez **NORK**-dunak, **NORI**-dunak edo **NORK**-dunak zireneko hartatik hasi beharko genuke beraz.

Nire ustez, hori, aditz-buruaren berarizko eskuhartze-modua alegia, aditzak adierazten zuen gertakariaren **NOLAKOARI** berez zerion eta horrela, adibidez, hasarretu **NORBAITERI** hasarretzen zitzaion, etorri **NORBAIT** etortzen zen, eta ihardun **NORBAITEK** ziharduen. «Iragankaitz/iragankor» egitura buruan sartuta duenarentzat hori ulerkaitza izatea ez da harritzekoa, baina gaztelaniaz «se LE ha enfadado AL padre» dion euskaldunari hori ateratzen zaio, oharkabean bada ere: Hasarretu, **NORBAITERI** hasarretzen zaiola, eta ez **NORBAIT** hasarretzen dela.

10. K. Rotaetxe. «Estudio estructural del euskara de Ondárroa».

Gero, beste aditz-buru batzuk «atzitzeko» aditzak heurak aldatuko zirela pentsa daiteke, orain

ihardun/iharduki-rekin

gertatzen denaren antzera: «**nik lanean dihardut/nik lanari dihardukat**».

Horrelakoren bat zuen agian gogoan Orixek **NORK** gabeko aditz laguntzaileko **NAKION**, **ZEKIOKEEN** eta horrelako **NORI-dunak** ***EDIN**-en flesiotzat ez baino ***EKIDIN** litzatekeen batekotzat jotzen zituenean.

Nolanahi ere,

EDUN/E(D)UKI/EUTSI

hirukoteari behintzat horrela sortu izanaren itxura ematen zaio, **EDUN NORK** eta **NORK-duna**, **E(D)UKI NOR-NORI-NORK-dun** izana¹¹ eta **EUTSI (>*EDUTSI) NOR-NORI**duna direla¹².

Eta **EDUN** aditz laguntzaile **NORK-duna** aipatu dugunez gero, horren **NORI-dunei** buruzko ohar bat egin dezagun. Jakinaenez, **NORI-dun** hoiek hiru eratakoak izan daitezke:

- **-RA-dunak**: **daRAuT** (daraut, daut, dereit), **daRAuk**,...
- **-(T)S-dunak**: **dauST**, **dauTSO**...
- **I-zkoak**: **dIT**, **dIK**, **dIO**,...

Lehenengo bi moztakoak **EDUN**-eri dagoxkiola garbi dago: **I-zkoak**, ordea, erabat bestelakoak ditugu, eta berezko **NORI-dun** litzatekeen **IN** aditzekotzat jo behar dira¹³.

Bukatzeko, labur ditzagun egin dugun azterpenetik euskal adizkeraren nondik-norakoari buruz nire ustez atera daitezkeen ondorioak.

11. Mitxelenak dionez, eta de Rijk-en aurkako iritzia gora-behera, **E(D)UKI**-ren oraingo flesioak

HARI dauko, dauka ➔ **HARK dauko, dauka**

gertatu, eta hori oinarri dela sortutakoak dirudite **NIK DAUKOT (DAUKAT)**, **HIK DAUKOK (DAUKAK)**, etabar.

Lehen **ERION**-ez ari ginela esan bezala, hemen ere **Z** askargilea erdian agertzea **DAUKAT/dauZkat**

aditz-gun bakuna ez, baizik eta

(D)U + KA

elkar-erante batetik sortua denaren egiaztagarri gertatzen da.

12. Omaetxebarria ere **EDUKI** eta **EUTSI** **EDUN**-eri darizkionaren ustekoa da, eta orobat **IÑON/IÑOTSI** eta **IRAUN/IRAUTSI** ere.

13. **EMAN** adierazten duenean ere **IN** berezko **NORI-duna** da:

Zuk niri indazu, zuk guri iguzu...

Eta hona xehapen interesgarri bat. Guk, **I-zko** **NORI-dun** hoiek **IN** aditzekoak direnaren ustea adierazi dugu; Leizarraga, alderantziz, **IN** = **EMAN** adierazteko, batzutan, **EDUN**-en **-RA**-ren bidezko **NORI** dunez baliatzen da:

(nik zuei) ba DRAUTZUET (ematen dizuet) **bothere**
anhitzek Iainkoari eskerrak DRAUZKIOTE (ematen dizkiote)
Iainkoari esker ta laudorio DRAUKAGU (ematen diogu)

- Flesioketa sortu baino lehen ba zen, antza, oraina eta orain eza

DA-iE-

aurrizkien bidez bereizten zituen aditz moduko bat; gero, aditzak dion gertakarian eskuhartzen dutenen adierazpena sartzten hasi eta flesioketa sortzerakoan, DA-dun eta E-dun hoiek flesio-zerrendan sartuta gelditu bide ziren HURA aditz-gaidunetarako eta NORK aditzjabedunetarako. Hoiek oinarri direla eratutako flesioez bestelakoetan, «orain eza» EN tartekatuz adierazten da.

– Aditzak dion gertakarian eskuhartzen dutenek NOR, NORI edo NORK gisa eskuhartu zezaketen, gertakari horren nolakoaren arauera.

□ NOR gisakoak NA-, HA-, A GA- eta ZA- aurrizkien bidez adierazten dira (na-tor, ha-bil, g-oa-z, za-u-de)

□ NORK bitara adierazten da:

a) Orainaldikoetan, -T, -K/N, -GU eta ZU atzizkien bidez.

B) Orainaldikoez bestetan, N-, H-, GEN- eta ZEN- aurrizkiez baliatuz.

Atzizki eta aurrizki-sail hoiere arteko ezberdintasunak, une horretan euskal adizkeraren bilakabidean nolabaiteko eten bat izan dela erakusten du. Bestalde, aurrizki-sail honek oinarri NOREN- a zuela pentsa daiteke.

□ NORI delakoa -T, -K/N, -O/A, -GU, -ZU, -(T)E atzizkiez adierazten zen eta hori, batzutan (IN aditzean adibidez) besterik gabe, aditzak zion gertakariaren nolakoaren indarrez, eta beste batzutan berriz aditza -(K)I, -(T)S -edo -RA--ren bidez NORI dunduz.

– Gero, hasieran eskuhartzaille bakarrekoak ziren aditzok beste aditzetako eskuhartzailleak «atzi» eta berebaitaratu, eta oraingo agizko adizkera gauzatzen da.

Nolanahi ere, hizkuntzak urrats hoiek banan-bana eta bata bestearen ondoren egin ahal izan dituela pentsatzea aldrebeskeria hutsa litzateke. Hizkuntza ez da aintzin-egitura bati datxekola gauzatu daitekeen zerbait, biziizateari berari dagokionez bide berriak urratuz mamitutakoa baizik, bilakuntza horretan zenbait aldiz hartutako bideak utzi eta berriei ekin, eta lehenengoak eta ondorengoak elkar estalzea eta nahastea berezkoa eta ezinbestekoa dela. Hoiek horrela direla ere, idazlan honetan egindako azterketari orain arte izan direnez bestelako ikuskerara bat dariolaketan gaude.

SUMMARY

In addition to the considerations argued in previous works, the aim of this work is to get an approach to the understanding of the present structure of the Basque verb through a thorough examination of its content.

In this sense, and correcting some of the conclusions already drawn, it can be stated that, at a first stage in the Basque conjugation, there are verbs with only one actant which declinative case (absolute, dative, ergative and even the genitive) would be determined by the nature of the action meant by the verb.

It can be stated that starting from this point of view, namely from a primitive conjugation with only one actant, it is more bound to be admitted than the fact that the present inflections would have derived as complex formas in which there already existed various actants.

Following the thesis put forward, the present verb inflections would have been formed through the «appropriation» by the primitive shapes of second or third actants. This would have been so after having lost the conscience of the primitive structure due as much to the natural evolution of the ideas as to external influences. In this primitive structure the nature of the action meant by the verb implies the relationship between the «subject» and the action and, therefore, the declinative case that referred to same.

The following sentence

«aitari hasarretu zaio» = To father it has got angry
(Father has got angry).

can serve as an example for actions like:

hasarretu: to get angry

beldurtu: to be afraid

erotu: to get mad

seem to require the use of dative for the subject. There are also alleged cases of verbs which, although they carry the subject inflections depending on the ergative, have required and still some require the dative.

Therefore, the «transitive/intransitive» and «subject-predicate» structures which derive from the classical languages and from the philosophy related to them are thus surpassed. In fact they do not allow any satisfactory explanation of some of the basque verb forms. Therefore and for basque ergative it could be suggested an explanation to be extended to further linguistic fields.

RESUME

Dans ce travail, et comme complément des considérations faites dans d'autres articles antérieurs, on prétend approcher de la compréhension de la structure actuelle du verbe basque en faisant un examen interne du même.

Dans ce sens, et rectifiant quelqu'une des conclusions exposées avant, on postule l'existence, à un premier stade de la conjugation basque, de verbes avec un seul actant dont le cas déclinatif (absolu, datif, ergatif et même génitif) viendrait déterminé par la nature de l'action exprimée par le verbe.

Ce point de vue (celui de partir de l'existence d'une conjugation primitive avec un seul actant) semble plus logique que d'admettre que les flexions verbales eussent pu naître comme des formes complexes où plusieurs actants coexisteraient déjà.

D'après la thèse qu'on propose, les formes actuelles seraient le résultat de la «captation», de la part des formes primitives, de seconds ou tiers actants après qu'on eût perdu, tant à cause de l'évolution naturelle des idées comme par des influences extérieures, la conscience de la structure primitive, dans laquelle la nature de l'action portait en soi le mode de relation du «sujet» avec cette action et, partant, le cas déclinatif que lui convenait.

Une phrase comme

«aitari hasarretu zaio» = on L'a fâché AU père»
(le père s'est fâché)

pourrait être l'exemple d'autres où des actions telles que

hasarretu = se fâcher

beldurtu = avoir peur

erotu = devenir fou

semblent demander l'emploi du datif pour le sujet. On cite aussi des verbes que, même si maintenant portent habituellement le sujet décliné d'après l'ergatif, ont demandé dans le passé, et quelques uns le font encore, l'emploi du datif.

On déborde donc les structures «transitif/intransitif» et «sujet/prédicat», procédant des langues classiques et de la philosophie qu'elles portent en soi, et que n'aboutissent pas à fournir une explication satisfaisante de quelques formes verbales basques. Ce faisant on suggère, pour l'ergatif basque, une explication que pourrait s'étendre à d'autres aires linguistiques.

RESUMEN

En el presente trabajo, y como complemento de las consideraciones expuestas en otros anteriores, se pretende acercarse a la comprensión de la actual estructura del verbo vasco mediante un examen interno del mismo.

En ese sentido, y corrigiendo alguna de las conclusiones expuestas anteriormente, se postula la existencia, en un primer estadio de la conjugación vasca, de verbos con un solo actante cuyo caso declinativo (absoluto, dativo, ergativo y aun genitivo) estaría determinado por la naturaleza de la acción expresada por el verbo.

Este punto de vista (el partir de la existencia de una primitiva conjugación con un solo actante) parece más lógico que la admisión de que las actuales flexiones verbales hubieran surgido como formas complejas en que coexistían ya varios actantes.

Según la tesis que ahora se propugna, las actuales flexiones verbales se hubieran formado mediante la «captación» por las formas primitivas de segundos o terceros actantes tras haberse perdido, tanto por la natural evolución de las ideas como por influencias externas, la conciencia de la estructura primitiva, en la que la naturaleza de la acción expresada por el verbo llevaba implícito el modo de relación del «sujeto» con esa acción y, en consecuencia, el caso declinativo que le correspondía.

Una frase como

«aitari hasarretu zaio = se le ha enfadado al padre»
(= el padre se ha enfadado)

puede servir de ejemplo de otras en que acciones como

hasarretu = enfadarse

beldurtu = tener miedo

erotu = enloquecer

parecen requerir el uso del dativo para el sujeto. Se aducen también casos de verbos que, si bien actualmente suelen llevar el sujeto declinado según el ergativo, han requerido y algunos requieren aún el dativo.

Se desbordan pues las estructuras «transitivo/intransitivo» y «sujeto/predicado», procedentes de las lenguas clásicas y de la filosofía a que las mismas responden, que no permiten una explicación satisfactoria de algunas formas verbales vascas. Con ello se sugiere, para el ergativo vasco, una explicación que pudiera ser extensible a otros ámbitos lingüísticos.

